



# PRENTSA DOSIERA

2024ko urriaren 9ko prentsaitzinekoa, Baionan

- 
- Beñat Molimos, EHLGko lehendakaria
  - Antton Cabanne, EHLGren Lagunak elkarteko lehendakaria
  - Iker Elosegi, EHLGko koordinatzailea

Prensa harremana : Maritxu Inçagaray Haiçaguerre (maritxu@ehlgbai.org)  
Euskal Herriko Laborantza Ganbara : 05 59 37 18 82 | www.ehlgbai.org



Euskal Herriko Laborantza Ganbarak (EHLG) bere urteroko emaitza deialdi kanpaina eramanen du, 2024ko urriaren 14tik azaroaren 22ra. Zer gairen inguruan ? Trantsizioen gaia jorratzen segituko du beti, aurten, agro-oihangintzaren lan ardatza erakustiz.

Euskal Herriko Laborantza Ganbararen lehen misioa trantsizioen sustatzea da, laborantza eredu herrikoi, iraunkor eta solidarioa garatzeko Euskal Herrian. Laborantza herrikoiaren oinarriak besterik ez dira. EHLGk 19 urte daramatza laborari eta laborariak ildo horretatik laguntzen.

Sortu denetik, 2005ean, EHLG-k hainbat lan ardatz ideki ditu, hauen artean agro oihangintzarena, duela 10 urte hain zuzen.

## AGRO-OIHANGINTZA : zertaz ari gira ?

### DEFINIZIOA

Agro oihangintzak, zuhaitz edota hesiak alor edota hazkuntzari elkartzen dituen praktika agroekologikoa da. Helburua da arbolek dituzten onurak erabiltzea laborantza ekoizpenean.

### ZUHAITZEN ONURAK

PENTZE edo ALORREaren heinean	→	<ul style="list-style-type: none"> <li>• haizea moztea</li> <li>• itzala eta freskotasuna ekartzea kabaleri</li> <li>• mikroklima ekartzea</li> <li>• lurzoruen emankortasuna hobea</li> </ul>
ETXALDEAREN heinean	→	<ul style="list-style-type: none"> <li>• lur higadura mugatzea</li> <li>• egur edo fruitu ekoizpena</li> <li>• inaurkin ekoizpena</li> <li>• pentze eta alorren zedarriztatzea</li> <li>• bazkaren osagarri</li> <li>• kabalen ongizatea</li> <li>• giza ongizatea</li> </ul>
LURRALDEAREN heinean	→	<ul style="list-style-type: none"> <li>• bioaniztasuna</li> <li>• uraren kalitatea eta erregulazioa</li> <li>• paisaien kalitatea</li> <li>• xara eta oihaekin lotura egiten duen hesi eta arbol isolatuen sarea (ikus gehigarria)</li> </ul>
OROKORKI	→	<ul style="list-style-type: none"> <li>• karbonoaren biltzea</li> </ul>

Agro oihangintza, laborantza ekoizpen mota anitzen sistema osagarri bat da. Zuhaitz mota frango elkartzen ahal dira, mugagabeko konbinazioak eskainiz.

Zuhaitzak isolatuak izan daitezke, lerroz lerro, taldean edo pentzearen mugetan (hesi, arbol lerrokadura, zuhaitz isolatuak). Fruitu baratze pentzeetan ere aurki ditzazkegu.

Euskal Herrian, ezaugarri ezberdineko hirurogei tokiko espezie baino gehiago kondatzen dira : lizarra, haritza, haltza, basagerezia, pagoa, urkia, gaztainondoa, zumalakarra, elorria, zuhandor arra, sabuka, sagarrondoa, gereziondoa, aranondoa... Landaketak lurzoru bakotxaren jiteari eta lur zatien orientazioari egokitzeko ahala emaiten dute.



→ EHLGren laguntzarekin egin partzela barneko landaketa, Uharte Garaziko etxalde batean.

Lehen helburua : kabalentzat itzala ekarri pentze iguzkitsu honetan.



→ EHLGren laguntzarekin egin fruitu arbol landaketa, Domintxineko etxalde batean.

Lehen helburua : lur zatia baloratu eta sagar jus ekoizpena abiatu epe laburrean, etxaldeari aktibitate osagarri bat gehitzeko.

Agro oihangintzak laborantza herrikoia hainbat printzipioekin bat egiten du, hala nola : etxaldeen eta laborarien autonomiarekin, naturarekin lan egitearekin eta produktuen kalitatearekin.

Lurralde mailan, sistema honek aterabide interesgarriak ekartzen ditu klima, energia, ingurumena, elikadura, gizarte erronka eta TRANTSIZIO beharrerri begira.

## EHLG-K INGURUMENA LANDATZEN LAGUNTZEN DU



*Proiektuaren sortzea, landaketen jarraipena, formakuntzak, EHLGk Euskal Herriko laborarien agro oihangintza proiektuak hurbiletik segitzen ditu.*

Agro oihangintzak interes anitz dituela konbentziturik, Euskal Herriko Laborantza Ganbarak lan sail hau 2014an abiatu zuen.

Denbora osoz ari den animatzaile batek laborarien proiektuak jarraitzen ditu :

- Etxaldeetan, landatze proiektuen plantan emaiten laguntzen ditu :
  - o beharri egokia den proiektu tekniko eta ekonomikoa finkatu (egoera pedoklimatikoari egokiak diren landatze lekua eta barietateak hautatu),
  - o diagnostika tekniko bat prestatu,
  - o landareak eta materiala manatu,
  - o landatze lanak jarraiki,
  - o lan administratiboa.
- etxaldetako zuhaitz eta hesiak iraunkorki kudeatzen laguntzen du
- formakuntzak antolatzen ditu
- ekitaldiak antolatzen ditu : lehiaketak, kolokioak, landatze xantierrak...

Jarraitzen diren proiektuak desberdinak dira, laborarien beharren arabera eta etxaldeko ekoizpenen arabera. Izan hazkuntza (ardi, behi, hegazti, xerri, etab.), baratzezaintza, mahastizaintza, arbolazaintza... proiektu bakotxa bakarra da.

EHLG-k Gaztaina elkartearendako gaztainondo landaketa lanak laguntzen ditu, eskura ezarriak diren herri lur sailetan. Adibidez, 113 gaztainondo landatuak izan dira joan den urtarrilean, Heleta herriko lurretan, Hazparneko Armand David lizeoko ikasleen laguntzarekin.

Bestalde, EHLGk sentsibilizatze eta pedagogia lan bat segurtatzen du ikastetxeekin, gelan baita ere landatze xantier kolektiboak antolatuz.

Agro oihangintzak zeharkako gai frango hunkitzen ditu, hala nola : agronomia, hazkuntza, artzaingoa, laborantza politikak, ingurumen neurriak, proiektu kolektiboak, alde juridikoa... EHLGk plantan dituen hainbat zerbitzu eta prestazio.

## 2014-2024 GAUZATUAK

- nazioarteko kolokio 1 (zuhaitz lepatuetaz)
- agro oihangintza praktiken 2 lehiaketa
- 21 formakuntza
- 33 km hesi landatuak
- 50 laborari landatzeko lagunduak
- 600 m hesi landatuak batz-beste proiektuka, 60 arbol espezie baino gehiagorekin
- 35 000 zuhaitz landatuak
- partaide anitzeko 2 proiektu et landatzeak edozein etxalde motetan !



## EMAITZA EGIN EHLG-ri trantsizio hauek eraikitzeko manera bat

TRANTSIZIOEN bidea bakotzak parte hartuz posible da

EHLGri emanak zaizkion emaitzek gure lurraldearen intereserako beharrezkoak diren elkarre-jarduerak diruztatzen dituzte, adibidez agro oihangintza.

Landatze proiektuek Euskal Herriko etxaldeetan loratzen segitzeko, herritarrek laborantza herrikoi eta solidarioa sustengatzen ahal dute, EHLGren ekintzak emaitza baten bidez lagunduz.

Partikularra izan edo enpresa, EHLGren laguntzea, laborantza herrikoiaren laguntzea da, Euskal Herrian, TRANTSIZIOAn parte hartzea da.

Trantsizioak gure esku !

Emitza bat egiteko : [www.ehlgbai.org](http://www.ehlgbai.org)

Emitza kanpaina sare sozialetan jarraiki :



# Zuhaitza paisaia



Euskal Herriko arbol sarea (Ainharbeko paisaia)

XARA

ERREKA BAZTERREKO HESI LERROA

ARBOL LERROA

FRUITU BARATZE PENTZEA

HESIAK

ZUHAITZ BAKARTIAK

MOTA	ERABILPENAK, ADIBIDEAK
Hesia (pentze edo alor bazterrean)	Hesi fruitudunak, pentzeen zeradurak, biomasa ekoizpena, haizea moztea
Zuhaitz lerroa	Fruituak, itzala, biomasa ekoizpena, estetika
Erreka bazterreko zuhaitz eta hesiak	Ur bazterren abikitzea, itzal gunek, biomasa ekoizpena
Arbol isolatuak Xara, arbolak taldean Oihan bazterra	Itzala, biomasa ekoizpena
Landa erdiko zuhaitzak	Zuhaitz lerroak alorretan edo baratzeazintzan, fruitu baratze alhatuak Puralleria eta zerri saroak Fruitu baratzeak, larre oihantsuak zuhaitz azpiko hazkuntza (ardi, behi) oihan fruitudunak, gaztainondo lekuak berotzeko egur ekoizpena

Echelle 1 : 6 000

0 200 m

Sarako irudi bat, non eta arbolen sarea ongi ikusten den